



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

Berriazko merezimenduen lehiaketaren deialdia GUFÉ-ko ume eta nerabeentzako zerbitzuen dibisioko buruaren eta egoitza harreraren unitateko zuzendariaren lanpostuak hornitzeko.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

Lehenengoa: Deialdia onestea berriazko merezimenduen lehiaketa egiteko, helburua izanik Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko buruaren eta Egoitza Harreraren Unitateko zuzendariaren lanpostuak hornitzea. Lanpostuak eranskinean daude adierazita.

Bigarrena: Deialdiaren oinarriak onestea, zeinak erabaki honen eranskinean ageri baitira.

Hirugarrena: Agindua ematea erabaki hau eta oinarriak osorik argitara daitezen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFÉren iragarki-taulan zein webgunean.

Laugarrena: Baimena ematea GUFÉko gerenteari deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintzak egin ditzan, deialdia behar bezala ebatzi arte.

Bosgarrena: Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke gizarte-arloko epaitegian, bi hilabeteko (2) epean, edo, bestela, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko batzorde honi, hilabeteko (1) epean.

Bilbon, 2025eko abenduren 5ean. —GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO (GUFÉ) LANPOSTUAK BERARIAZKO MEREZIMENDUEN LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA****OINARRI OROKORRAK****Lehena. — Lehiaketaren xedea eta lehiaketan eska daitezkeen lanpostuak**

1. Oinarri hauen xedea da deialdiaren oinarri espezifikoetako 1A eta 1B eranski-netan agertzen diren lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketaren deialdia egitea. Lanpostuak lehiaketa bidez bete ahalko dira, merezimendu orokorrez, proba bidezko berariazko merezimenduz edo berariazko merezimenduz, eta multzokaturik edo bereiz aurkeztu ahal izango dira, aplikatu beharreko baremo-modalitateen arabera.

2. Era berean, oinarri hauen xedea lan-poltsa sortzea da, deialdiaren oinarri espezifikoetan agertzen diren kategoría edo arlo funtzionalei dagozkien lanpostuak aldi baterako betetzeko barne-sustapenaren bidez, lanpostua gordeta. Lanpostu horien erregulazioa hamahirugarren oinarrian ezartzen da.

Bigarrena. — Parte hartzeko baldintzak eta betekizunak

1. Lan-kontratu mugagabeko langile finkoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, baldin eta, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, jardunean, nahitaezko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian eta senitartekoak zaintzeko eszedentzian badaude, lanpostu-zerrendetan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan eta Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamenduan ezarritako baldintza osagarrietan eta deialdi honen oinarri arautzailetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Aldi baterako barne-sustapeneko kontratu baten bidez (lehen, goragoko eginkizunak egiten) jarduneko zerbitzuan dauden foru-erakundeko langileek prozesuan parte hartu ahalko dute, baina goragoko kategoriako lanei utzi beharko dizkiote lanpostu berrian hasteaz batera.

Dagokion lanpostua esleitu aurretik Giza Baliabideen Planari atxikitzea eskatu duten foru-erakundeko langileek lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Dena dela, Plan horren ondorioetarako, atxikitzeko eskaera egiten den egunean indarrean dauden baldintza ekonomikoak izango dituzte, eta inola ere ez lanpostu edo destino berriaren ondoriozkoak.

Esleitutako lanpostuetan era formalean hasten den egunera arte bete beharko dira baldintzak, geroago esango den moduan. Parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileek ezin izango dute esleitutako lanpostua eskuratu.

Honako hauek ezin izango dute lehiaketetan parte hartu:

- A) Aurreko bi urteetan, lehiaketa bidez eskuratutako lanpostu batez jabetu diren lan-kontratuko langileek, lanpostua betetzeagatik edo GUFEn sartzekoagatik. Denbora-muga hori ez da aplikatuko langileek lehiaketan ateratako lanposturako atxikipena galdu badute.
- B) Eginkizun-gabetze irmoan dauden langileek, egoera horrek irauten duen bitartean.
- C) Norberaren interesagatik edo familia elkartzekoagatik borondatezko eszedentzian egon arren, lanera itzultzeko gutxieneko denbora eman ez duten lan-kontratuko langileek.

2. Era berean, GUFeko lan-kontratuko langileek ere parte hartu ahal izango dute, prozedura horien baliatuz jarduneko zerbitzura itzuliz, baldin eta beste administrazio publiko batzuetan lan egiteagatik bateraezintasun-egoeran badaude.

3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko da prozeduran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutako betez, eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen lanpostuak betetzeko prozeduraren printzipio inspiratzaile gisa.



4. Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua 1. paragrafoak xedatzen duen legez, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbide, ogibide eta jardueretan hasi eta jardun ahal izateko, nahitaezkoa izango da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta -identitatearen aurkako edozein deliturgatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea, bai eta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako giza salerosketako edozein deliturgatik ere kondenatua ez izatea. Horretarako, lanbide, ogibide edo jarduera horietan hasi nahi duenak aipaturiko egoera egiaztatu beharko du, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuta.

Manu hori aplikatuz, nahitaezko baldintza izango da ziurtagiri negatibo hori izatea adingabeekiko harremana dakarten lanpostuak behin-behineko edo behin betiko adjudikatzeko.

Horrenbestez, halako lanpostuak eskatzen dituzten langile funtzionarioek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute, hurrengo oinarrian ezartzen den moduan.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko ereduak eta epeak, eta onartutakoan, baztertutakoan eta lehentasunezkoen zerrendak

1. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideak, 2. Eranskinean ageri diren ereduekin bat datozenak eta GUFeko kudeatzaileari bidalitakoak, era elektronikoa aurkeztu ahal dira ifas.registro@bizkaia.eus postontzira igorrita. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako edozein bulegotan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideok.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, eta deialdia azken Aldizkari Ofizialean (deialdia BAOan argitaratzea derrigorrezkoa da) argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da. Alderdi hori deialdiaren oinarri espezifikoe-tan zehaztuko da.

Parte hartzeko eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu den azken eskabidea soilik izango da baliozkoa eta hura izapidetuko da.

2. Parte-hartzaile bakoitzak deialdiaren oinarri berezietan aipatzen diren plaza hutsak eska ditzake, lehentasun-hurrenkera ezarrita, betiere haietan eskatutako baldintzak betetzen baditu.

Adingabeen ohiko harremanaren ezaugarria duten eta Lanpostuen Zerrendan horrela identifikatuta dauden lanpostuak eskatzen dituzten lan-kontratu mugagabeko langile finkoek (23. eta 26. oharra) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteari buruzko Lege Organikoaren 57.1 artikulua ezarritako baldintzetan. Adierazitakoari jarraikiz jokatu ezean, lanpostu horiek ez eskatutzat joko dira. Halaber, lanpostu horietako baten esleipendun izateko unean Sexu Delitugileen Erregistro Nagusian aurrekariak badaudela egiaztatzen bada, lanpostu horietatik kanpo geratuko dira.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluaekin bat etorritik, eskabideetan akatsik izanez gero, interesdunari eskatuko zaio, GUFeko iragarki-taulan (fisikoan eta birtualean) iragarkia jarritik, hamar eguneko epean akatsa zuzendu dezala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren. Eskabidean ez dira akastzat joko eskatutako lanpostuen lehentasun-hurrenkera egindako aldaketak, eta, beraz, atal horretan egindako akatsak ezin izango dira zuzendu.

3. Desgaitasuna duten parte-hartzaileek –desgaitasuna behar bezala egiaztatzen badute eta organo eskudunak gehienez ere urtebete lehenago emandako txostenaren bidez eguneratuta badute– eskatzen duten lanpostua edo lanpostuak egokitzea eska dezakete lanpostu hutsen eskabidean, baldin eta egokitzapen horrek erakundearen barruan gehiegizko aldaketarik egin beharra ez badakar.



4. Hala baleude, probak egiteko egokitzapena bidezkoa den Balorazio Batzordeak ebaluatuko du. Horretarako, beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio egokitzapena eskatu duenari, elkarrizketa pertsonala eginez. Era berean, organo teknikoaren irizpena ere eska dezake (Lan Arriskuen Prebentzio Arloa eta Lan Arloa), beharrezkoak diren egokitzapenen inguruan.

5. GUFeko organo egokiak balioetsiko du lanpostua edo lanpostuak desgaitasunari egokitzea bidezkoa den ala ez, baina horrek ez dio kalterik eragingo erakundeari, bai eta, hala badagokio, lanpostu jakin horretako zereginak eta eginkizunak bete zezaren inguruko bateragarritasuna ere. Horretarako, Balorazio Batzordeak, esleipenen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari jakinaraziko dio egokitzapena eskatu duten pertsonen lanpostu bakoitzean duten lekua lehiaketan. Zuzendaritza horrek, elkarrizketa pertsonala eginez, lanpostuari dagokion zentro edo zerbitzuaren proposamena eskatu ahalko dio eskatu duenari, eta, horrekin batera, dagozkion organo teknikoaren irizpena eskatuko du (Lan Arriskuen Prebentzio Arloa, behar diren egokitzapenei buruz).

6. Era berean, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda argitaratu aurretik, Laneko Arriskuen Prebentzio Arloak txostena egingo du, eskatutako lanpostuez denaz bezainbatean, osasun-arriskuan edo desgaitasun-arriskuan dauden pertsonen gaitasunari buruz, eta horietan egin beharreko egokitzapenak kontuan hartuko ditu. Hala eta guztiz ere, ezgaitasun-txostena egiten bada, interesdunari entzunaldia emanda, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrendan agertzen den lanpostutik baztertze arrazoia izango da.

7. Onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, GUFeko iragarki-oholean eta intraneten («Lanpostuak betetzeko sistema» deritzon atalean) argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda, deialdiko bigarren oinarrian ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen diren ala ez kontuan hartuta, Administrazioak egiaztaturik (eskaera epearen barruan, aurretiko esperientzia, jatorrizko administrazioa, jatorrizko lanpostua eta/edo lanpostua, administrazio-egoera...). Zerrenda horietan, hautagaien izena eta bi abizen jasoko dira, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia. Onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioa aurkez dezakete interesdunek hamar (10) egun baliioduneko epean.

Inola ere ez dira kontuan hartuko eskabideak aurkezteko epean lehiakideek adierazi ez dituzten merezimendu berriak, eta ez da onartuko eskatutako lanpostuen lehentasun-hurrenkera aldatzea.

8. GUFeko kudeatzailearen ebazpena, onartutakoaren, baztertutakoaren eta bete gabe geratu diren lanpostuen zerrendak onartzei buruzkoa.

Erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, onartutakoaren, baztertutakoaren eta lehentasunezkoen zerrenda prestatu eta argitaratuko da seigarren oinarrian adierazitako lekuetan. Zerrenda hori GUFeko kudeatzailearen ebazpena dela bidez onartuko da.

Ebazpen horretan bertan, bete gabekotzat joko dira hautagairik izan ez duten lanpostuak eta, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda taxutu ondoren, onartutako hautagairik ez duten lanpostuak.

Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea dago administrazio-egintza horren aurka.

Nolanahi ere den, izendatzen den Balorazio Batzordeak, prozedurak irauten duen artean, baldintzak berrikusi beharko ditu, eta kudeatzaileari proposatu beharko dio, ebazpen bidez onar ditzan, baldintza horiek betetzen ez dituztenak eta lehen fase horretan baztertuak izan ez direnak.

Laugarrena. — Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak

1. Gehienez eta gutxienez lortu daitekeen puntuazioa, euskararen jakite-maila alde batera utzita, deialdiaren oinarri espezifikotik zehaztuko da.



2. Betekizunak baloratzeko orduan, deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu deneko data hartuko da erreferentzia moduan (derrigorrezkoa da deialdia BAOan argitaratzea) Hala ere, merezimendu eta betekizunak proba bidez egiaztatzen direnean (euskarazkoa eta proba espezifikoa), erreferentzia-data hori prozeduraren barruan egitekoak diren probak egiten diren egunera arte luzatuko da. Baloratu nahi diren betekizun eta merezimendu guztiak eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu behar dira.

Bosgarrena. — Merezimenduak eta betekizunak baloratu eta egiaztatzea

1. GUFEn betetako lanpostuei, titulazioei eta prestakuntza-ikastaroei buruz alegatutako merezimenduak, aitortutako antzinasuna, destino-osagarriari dagokion maila pertsonal finkatua eta euskararen hizkuntza-eskakizuna, datu-basean agertzen direnak, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak —ofizioz emango du— edo gainerako herri-administrazioetako organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, 3. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

2. Merezimendu horien ondorioetarako, Zuzendaritza horrek egiaztatuko du GUFEn edozein kontratu-loturaren bidez betetako lanpostuetan izandako esperientzia, baldin eta lehiatzen den lanpostuan betetakoen antzekoak edo berdinak badira (3. eranskina).

Beste administrazio publiko batzuei dagozkienak erakundeen ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; kasu horretan, berdintasun- edo antzekotasun-maila Balorazio Batzordeak ebaztuko du era arrazoituan.

3. Tituluak (norberarena edo titulu lortzeko ordaindutako eskubideak) eta ikasketamailak agiri konpultsatuen edo behar bezala egiaztatutako fotokopiaren bidez ziurtatuko dira. Ez da beharrezkoa izango horiek aurkeztea, baldin eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren ziurtagirian egiaztatuta badaude.

Master eta graduondoko tituluei dagokienez, horien edukiari, iraupenari eta emateko erakundeari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Graduondoko tituluei gagozkiela, tituluen edukiari eta iraupenari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da. ECTSko kreditu bakoitzak –1125/2003 EDaren 4.5 artikulua- ren arabera– 25 ordu balioko du, eta kreditu (zahar) bakoitzak –1497/1987 EDaren 2.7 artikulua- ren arabera– 10 ordu, ez bada beste balorazioen bat egiaztatzen aurkeztutako agirien bitartez.

4. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak eman izana eta ikastaroetara joan izana egiaztatzeko, diploma, eman izanaren ziurtagiria edo dagokion erakundeak emandako bertaratze-ziurtagiria, konpultsatua edo behar bezala egiaztatutako fotokopia aurkeztu beharko dira. Ez dira aurkeztu behar izango horiek GUFEn datu-basean jasota daudenean.

Ikastarook Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren hizkuntzetan egin badira, itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da.

Ikastaroak denboraren hurrenkeran aurkeztuko dira (zaharrenetatik hasita) eta 2. eranskineko ereduaren ageri den zerrendaren arabera.

5. Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak jasotzen dituen adierazpena aurkeztu beharko da, merezimendu horiek behar bezala egiaztatzen dituzten agiriekin batera.

Ezin izango dira baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatutakoez bestelako merezimenduak, ez eta epe horren barruan alegatu eta ondoren justifikatzen diren merezimenduak ere, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak edo gainerako administrazio publikoetako organo eskudunak emandako ziurtagiria izan ezik, oinarri honetako 2. zenbakian aipatzen den legez, baldin eta eskabideak aurkezteko epearen barruan eskatu bada.

Era berean, eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu baina ondoren justifikatu diren merezimenduak baloratu ahal izango dira, baldin eta merezimendu horien egiaztapenak ez bazeuden interesdunen eskura haiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik, eta pertsona horiek dagozkien egiaztagiria eskabideak aurkezteko epearen barruan



eskatu badituzte (egiaztagiriaren eskaera hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da epearen barruan).

Aurreko paragrafoan jasotako baldintzetan eta baldintzetan aurkeztutako merezimenduak baliozkoak izan daitezten, merezimenduak jaso eta berehala egiaztatu beharko dira, betiere deitutako lanpostuak esleitzeko behin-behineko proposamenari erreklamazioak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Nolanahi ere, ikastaroen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna baino lehen amaituta egon behar dute.

Era berean, «oharren» zutabearen ezarritako betekizun espezifikoaren eta hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, aldezturik egiaztatu ez badira.

Ziurtagiria, titulua edo justifikazio-dokumentua sinadura elektronikoko ziurtagiriren bat erabiliz sinatu bada, sinatzen duen pertsonaren nortasuna kontsultatu ahal izateko (QR, CNE kodea...), nahikoa izango da sinadura elektronikoa duen fitxategia GUFeko erregistroa bidaltzea (ifas.registro@bizkaia.eus).

Ziurtagiria, titulua edo justifikazio-dokumentua paperean sinatu bada, GUFeren erregistroa bidali beharko da, eta, gainera, jatorrizkoa aurkeztu beharko da GUFeren erregistroan edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak adierazitakoren batean. Jatorrizko dokumentu hori urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.5 artikuluan jasotako moduan digitalizatuko da.

Seigarrena. — Komunikazioak eta jakinarazpenak

1. Bai euskara-proben deialdia, bai merezimendu espezifikoaren proben deialdiak, bai prozedura honi lotutako Balorazio Batzordearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak iragarki-taula fisiko eta birtualean eta GUFeko intraneten argitaratu egingo dira, bai iragarki-taula fisikoan egiten diren argitalpenek bakarrik izango dute legezko balioa.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, lanpostuak betetzeko prozeduratik eratorritako administrazio-egintzak Intraneten eta GUFeko iragarki-taulan (Ugasko bidea 5 bis, 1.a, Bilbo) argitaratuko dira, jakinarazpena ordeztu eta ondorio berberak sortuko dituela.

2. Balorazio Batzordeak ez du inolako erantzukizunik izango informatikako arazoek eraginda iragarki-taula birtualaren bidez egiten diren komunikazio eta jakinarazpenetan suertatzen diren akatsei edo atzerapenei dagokienez, iragarki-taula horren balioa informazio-emate hutsezkoa da eta.

Zazpigarrena. — Balorazio Batzordea

1. Balorazio Batzordeari dagokio merezimenduak baloratzea, bai eta, deialdiaren oinarrien arabera, esleipendun suertatzen den eskatzaile bakoitzari lanpostu egokia esleitzeko proposamena egitea ere. GUFeko kudeatzaileak izendatutako pertsonak eta horien guztien ordezkoez osatuko dute proposamena, honela:

- Batzordeburu jardungo duen pertsona.
- GUFeko hiru lan-kontratudun finko; horietako bat idazkaria izango da, eta hitza eta botoa izango ditu.
- GUFeko Enpresa Batzordeak izendatutako pertsona bat.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probetan.

Balorazio Batzordearen osieran, batzordeko kideen egokitasuna eta prestakuntza bermatu behar da. Horretarako, deialdia egin duen organoa arduratuko da batzordekideek ondo ezagutu ditzaten, bai deialdian ateratako lanpostuen eginkizunen edukia, bai deialdian jasotako merezimenduak egiaztatu eta hautatzeko teknikak.

Balorazio Batzordea osatzen duten pertsonak karrerako funtzionarioak izan behar dute, eta deialdiko lanpostuaren titulazio bera edo handiagoa izan. Hala berean, kideen erdiek, gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuei dagokien maila nagusiaren pareko edo goragoko hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute egiaztatuta.



Lanpostuaren berezitasunen arabera iritzi aditu batengana jotzea egokitzen jotzen denean, Balorazio Batzordeak kanpoko aholkulariengana jo ahal izango du, eta horiek, soil-soilik, hautagaiak bete beharreko lanpostuetara egokitzen direla jakinarazteko egin-kizuna beteko dute. Aditu horiek ez dute ez hitzik ez botorik izango ebazpen-proposamenaren aurreko eztabaidetan.

2. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearekin kontrastean ez dagoen guztian, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Erregelamenduak (Eusko Jaurlaritzaren urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onartua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera eratuko da Balorazio Batzordea.

Epaimahaietan parte hartzeagatik ematen diren laguntzak, lankidetzak eta abar Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan eta zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Zortzigarrena. — Lehiaketaren garapena eta atzera egitea

1. Ebaluazio Batzordeak, eratu ondoren, berariazko merezimenduen faseko proba edo ariketa praktikoa noiz egingo den jakinaraziko du, gutxienez bi hilabete lehenago.

2. Balorazio Batzordeak lehiaketan parte hartzen dutenen merezimenduak balorazteari ekingo dio, administrazioak emandako datuak eta deialdian eskatutako betekizunak egiaztatu eta gero.

Balorazioa amaitu ondoren, lortutako emaitzei buruzko erabakia eta deialdiko lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamena jakinaraziko ditu batzordeak, balorazio horren emaitzen eta lehiaketan parte hartzen dutenek agerrarazi duten lehentasun-hurrenkeraren arabera, halakorik baldin bada.

Edozelan ere, behin-behineko proposamenean destinorik ez lortzeak ez du esan nahi behin betiko ebazpenean destinorik lortu ezin denik. Era berean, behin-behineko proposamenean destinoa lortu izanak ez du eskubiderik ematen behin betiko ebazpenean destino hori edo beste bat lortzeko.

Erabaki hori deialdian ezarritako hedabideetan argitaratuko da. Erreklamazioak aurkezteko, hamar (10) egun balioduneko epea ezartzen da.

3. Aurreko epealdia amaituta eta, behar denean, aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Balorazio Batzordeak ebazpena jakinaraziko du, eta behin betiko puntuazioa argitaratuko du.

4. Lehiaketa osoan parte hartzeari uko egiteko epea erreklamazioak aurkezteko epea amaitu aurreko egunean amaituko da.

Bederatzigarrena. — Ebazpena

1. Balorazio Batzordeak, informazio gisa, azkenean puntuaziorik onena lortu duenaren aldeko behin betiko adjudikazio-proposamena argitaratuko du, betiere puntuazio hori deialdiaren oinarrietan eskatutako gutxieneko puntuazioaren parekoa edo handiagoa bada. Proposamen hori organo eskudunari aurkeztuko dio.

2. Lehiaketaren puntuazio osoan berdinketarik gertatzen bada, honako irizpide hauen arabera ebatziko da:

- a) Merezimenduen lehiaketetan, merezimenduetan lortutako puntuazioa, deialdiko baremoan ezarritako gehieneko puntuazioaren arabera hurrenkeran, puntuazio handienetik hasi eta txikienean amaituta. Merezimenduek puntuazio bera ezarritan dutenean, deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera erabakiko da.
- b) Hala ere, berdinketak jarraituz gero, hurrenkera hau erabiliko da, betiere antzinate handiena lehenetsita: lehiaketan parte hartu den kidego edo eskalan karrerako langile funtzionario legez izandako antzinatea; karrerako langile funtzionario legez izandako antzinatea; azken behin betiko lanpostuan izandako antzinatea, eta, azkenik, administrazioan izandako antzinatea.



- c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 artikulua a) letrak xedatutakoaren arabera, lanpostu bat betetzean gaikuntza-berdintasuna badago, emakumeari emango zaio lehentasuna, dagokion kategorian emakumeen ordezkariak % 40tik beherakoa denean, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak dituztenak, sexuagatiko bereizkeriarik eragiten ez dutenak, hala nola enplegua sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- d) Berdinketa hausteko beste irizpideren bat behar izanez gero, Balorazio Batzordeak zehaztuko du, merezimendu printzipioan oinarrituta.

Deialdiko lanpostuak honako kasu hauetan bakarrik geratu daitezke hutsik: inork eskatu ezean; batzuek eskatu arren, eskatzaileetako inork ez badu lortu eskatzen zen gutxieneko puntuazioa; inor ez bada lehiatzeko onartu; hautatutakoak ez baditu betetzen lanposturako ezarritako betekizunak; baztertuta geratu bada hirugarren oinarriaren 6. puntuaren arabera.

Lanpostu-erreserbarik ez duten funtzionarioak jarduneko zerbitzura itzultzen badira, haien artean berdinketa gertatuz gero, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 158.3 artikuluko irizpideei jarraituko zaie berdinketa ebazteko.

Hamargarrena. — Lanpostuak esleitzea

1. Honako lehiaketa hau GUFeko kudeatzailearen ebazpena dela bide ebatziko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Lehiaketa honen bidez lanpostu bat lortzen duten langileek ezin izango dute beste lehiaketa batean parte hartu harik eta bi urte bete arte lanpostu berriaz jabetzen direnetik.

2. Deialdi honetako lanpostua adjudikatzen zaienek aurreko lanpostua utzi beharko dute.

Esleipendunek lehiaketan lortutako lanpostuarekiko lan-kontratuak berrituko dituzte, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko dute, salbu eta, berritzea baino lehen, deialdi publiko baten bidez beste destino bat lortu bada, sortutako ezintasunagatik, jarduneko zerbitzuko egoera ez den beste egoera batera igarotzeagatik, edo deialdia egin duen organoak behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.

3. Adjudikatutako lanpostuak ukaezinak dira, hurrengo paragrafoetan xedatutakoa gorabehera.

Kontratatzeko eta/edo lanpostuaz jabetzeko epea amaitu aurretik beste destino bat lortu bada administrazio honetan edo beste batean egindako deialdi publiko baten ondorioz, eta kontratazio-epeak eta/edo lanpostuaz jabetzeko epeak bat badatoz, esleitu zaizkion lanpostuen artean aukeratu ahal izango da. Kasu horretan, GUFeko kudeatzaileari igorriko zaio aukeratzeko idazkia.

Lehiaketa honetan lanpostu baten esleipendun gertatu diren eskatzaileen kasuan, eta kontratazio-epea amaitu eta/edo lanpostuaz jabetu aurretik administrazio honen edo beste baten deialdi publikoaren bidez lortutako beste lanpostu batez jabetu badira, ondoren egindako esleipenetik kanpo geratuko dira. Horretarako, jatorrizko administrazioaren ziurtagiria eskatuko da, GUFekoa ez bada, bai eta horren gaineko zinpeko aitortpena ere, lanpostuaz jabetu behar duen egunean.

4. Lehiaketa honen ebazpenaren ondorioz gertatzen diren lekualdaketak borondatezkoztat joko dira, eta, hortaz, ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko.

5. Lanaldia, lan-ordutegia eta gainerako lan-baldintzak GUFEn aplikatu beharreko araudian lanpostu bakoitzaren inguruan adierazitakoak izango dira.

**Hamaikagarrena. — Lanpostu-uztea eta kontratatzea**

1. Lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan utzi beharko da atxikitako lanpostua. Hala ere, epe hori aldatu ahalko du Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzak arrazoiak emanez, atxikipena egin behar zaion zerbitzuaren beharrak behar bezala haztatu ondoren. Zerbitzu-arrazoiak direla-eta jatorrizko lanpostua uztea geroratu bazaio langile bati, lanpostua behin betiko utzi arte igarotako denbora lanpostu berria betetzen emandako denbora legez zenbatuko zaio.

2. Esleipendun izanik, lanpostua erreserbatzea dakarren lizentzia, aldi baterako barne-sustapena edo antzeko egoera (izendapen askea edo berresleipen funtzionala) duten pertsonak jatorrizko lanpostura itzuli beharko dira modu eraginkorrean, hau da, beren presentzia fisikoaren eta lanaldia eta lanpostua benetan betetzearen bidez; era berean, eskakizun hori beteta, lortutako lanpostua bete beharko dute.

3. Lanpostua utzi eta hurrengo egunean egingo da kontratazioa. Ebazpenak jarduneko zerbitzura itzultzea badakar, lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan egin beharko da kontratazioa.

4. Kontratazioa atzeratu egingo da baimenak, lizentziak, oporrak edo, jarduneko zerbitzuaren egoerari eutsiz gero, zerbitzuak benetan ematea eragozten duten langileak dauden beste edozein egoera amaitzen den egunera arte. Salbuespen gisa, behar bezala arrazoitutako eta justifikatutako arrazoiengatik, organo eskudunak horiek gozatzea etetea erabaki ahal izango du.

5. Hala ere, antolamendu-arrazoiak direla-eta, langileak kontratatzeko eta lanean hasteko esleipen-ebazpenean (desberdina izan daiteke), esleipendun guztiek lana uzteko eta kontratatzeko data zehatza finkatu ahalko da.

Hamabigarrena. — Aldi baterako langileek lanpostua uztea

Lanpostuak betetzeko prozedura honen bidez langile mugagabe finkoek beteko dituzten lanpostuak unean-unean betetzen dituzten aldi baterako langileek lanpostua utziko dute, eta langile horiek kasuan kasuko lanpostuetan hasiko dira lanean.

Hamahirugarrena. — Lan-poltsa

Deialdiaren xede diren kategoriei dagozkien lanpostuak aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko lan-poltsa sortzeko prozedura, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera parte hartzeko betekizunei eta baldintzei dagokienez, eta horien funtzionamenduari dagokionez, aplikatu beharreko lan-poltsak kudeatzeko irizpideetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Horrela, prozesua gainditzen duten langile guztiek lanpostuak aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko ateratzen den zerrenda osatuko dute, lehiaketa orokorrean eta, hala badagokio, proba espezifikoan lortutako puntuazioaren arabera.

Hamalauugarrena. — Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan arautu ez den guztiari doakionez, merezimendu-lehiaketa egiteko, honako arau hauetan ezarritakoa bete beharko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea; Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea; eta Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren urriaren 13ko 190/2004 Dekretua, arestian adierazitako araudiaren aurka ez doan guztiaz denaz bezainbatean.

Hamabosgarrena. — Lanpostu-zerrenda aldatzea

Lanpostuak betetzeko prozedura izapidetzen den bitartean, Lanpostuen Zerrenda aldatzen bada eta aldaketa horrek 1. eranskinean deitutako lanposturen baten atxikipen organikoa amortizatzea edo aldatzea badakar, deialdi hau aldatutzat joko da, lanpostu horiek amortizatuta edo atxikipen berriaren arabera atxikita gera daitezen, hurrenez hurren, eta parte-hartzaileek, azken kasu horretan, aldatutako lanpostuetan atzera egiteko aukera izango dute.

**LANPOSTUAK BETETZEKO MEREZIMENDU ESPEZIFIKOEN LEHIAKETAREN DEIALDIA**
OINARRI ESPEZIFIKOAK**Lehenengoa. — Lehenengo oinarri orokorra garatzeko**

Lehiaketaren xedea eta lehiaketan eska daitezkeen lanpostuak

1. Oinarri hauen xedea da merezimendu-lehiaketaren deialdia egitea 1 A eta 1 B eranskinetan adierazten diren lanpostuak betetzeko.

2. Lan-kontratu mugagabeko langile finkoentzat gordetako lanpostuak betetzea izango da xedea, eta lanpostu-zerrendak 1. kodea (lehiaketa) ezarriko du lanpostuak betetzeko sistema gisa.

3. Oinarri hauen xedea da, halaber, aldi baterako barne-sustapenaren bidez lanpostuak betetzeko lan-poltsa sortzea, deialdiaren oinarri espezifikoetan zerrendatuta dauden kategoria edo arlo funtzionalei dagozkien lanpostuak erreserbatuta.

4. Lanpostu bakoitzerako funtzio nagusiak 1 C eranskinean deskribatuta daude.

Bigarrena. — Hirugarren oinarri orokorra garatzeko

Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena. — Laugarren oinarri orokorra garatzeko

Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak

Lehiaketa honetan gehienez ere honako puntuazio hau lortu daiteke (euskararen ezagutzaren balorazioa alde batera utzita):

— Guztira hamasei puntu (16); hamar (10) merezimendu orokorren fasean eta sei (6) merezimendu espezifikoaren fasean.

Horregatik, lor daitezkeen gehieneko puntuazioa aurreko paragrafoetan adierazitakoa izango da, eta horri gehitu egingo zaio lanpostu bakoitzean euskarari dagokion balorazioa, LPZren betekizuna ez denean, derrigortasun-data igarota edukitzeagatik.

Hautaketa-prozesua gainditzeko eta lanpostua lortzeko, gutxienez hiru (3) puntuko kalifikazioa lortu behar da, merezimendu espezifikoaren fasean.

Lanpostuak adjudikatzen, merezimenduak honako baremo honen arabera baloratu dira:

1. MEREZIMENDU OROKORRAK**A) Egindako lanaren balorazioa**

Egindako lana deitutako lanpostuen arabera baloratu da, lanpostuaren arlo funtzionaleko edo sektorialeko lanpostuetan bildutako esperientzia kontuan hartuta eta aintzat edukita lehiaketara aurkeztu direnak ari diren lanpostuen ezaugarri teknikoaren eta espezializazioaren eta eskainitako lanpostuen ezaugarriaren eta espezializazioaren arteko antzekotasuna. Merezimendu hori baloratzeko orduan, langileek erreserbatuta daukaten lanpostuan egindako zerbitzutzat joko da zerbitzu berezietan eta erreserba duten beste administrazio-egoera batzuetan emandako denbora.

Balorazio horretatik salbuetsita dago konfiantzazko langile edo behin-behineko langile gisa egindako lana, bai eta izendapen askeko edo berresleipen funtzionaleko prozesu baten ondorioz egindako lana ere.

Lortutako esperientziari dagokionez, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren aurreko hamar urteetan lortutakoari gehienez ere 2,5 puntu emango zaizkio, honela banatuta:

— Lehiaketako lanpostuaren eduki tekniko bera duen lanpostu bat betetzeagatik: 0,25 puntu urteko edo 0,0208 puntu hileko.



- Lehiaketako lanpostuaren antzeko edukia duen beste lanpostu bat betetzeagatik: 0,175 puntu urteko edo 0,0146 puntu hileko.
- Lehiaketako lanpostuaren sarbide-talde bereko beste edozein lanpostu betetzeagatik: 0,1 puntu urteko edo 0,0083 puntu hileko.

Egindako lana aipatutako faktoreen arabera baloratzean hil osoak hartuko dira kontuan, eta zatikiak baztertuko dira. Administrazio publikoetako lanpostuetako esperientzia baino ez da baloratuko.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat zenbatuko dira.

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen testuategina eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak onetsi dituen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1c) artikulua betez, baloratuko egingo dira honako denbora hauek: lanbide-esperientziaren ondorioetarako, hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitasuna babestea edo bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazio ardurakidea erraztea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei dagokien denbora; eta emakumezko enplegatu publikoek genero-indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora.

B) Titulazio ofizialak eta gradu akademikoak

B.1. Titulu akademiko ofizialak izateagatik (titulua edo tituluaren ordezko ziurtagiria izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea) gehienez zortzi hamarren (0,8) emango dira, B.1.1. eta B.1.2. ataletako baremoaren arabera. A sailkapen-taldearen kasuan, unibertsitateen eta unibertsitate-eskolen berezko graduondoko tituluak ere baloratuko dira.

B.1.1. Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko lotura dutenean:

- A /A2 taldeko titulu bakoitzeko (unibertsitateko diplomatura): 0,20 puntu.
- A taldeko titulu bakoitzeko (unibertsitateko gradua): 0,30 puntu.
- Espezialitate ofizial bakoitzeko (BAME, BAEE, BAPE edo baliokidea): 0,35 puntu.
- Lizentziadun edo unibertsitateko master-titulu bakoitzeko: 0,40 puntu.
- Doktore-titulu bakoitzeko: 0,50 puntu.
- 10 ECST kreditutik gorako graduondokoak: 0,30 puntu.
- 10 ECST kreditu arteko graduondokoak: 0,20 puntu.

B.1.2. Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko loturarik ez dutenean, eta, bai, ordea, jarduera-arloarekin:

- A /A2 taldeko titulu bakoitzeko (unibertsitateko diplomatura): 0,10 puntu.
- A taldeko titulu bakoitzeko (unibertsitateko gradua): 0,15 puntu.
- Espezialitate ofizial bakoitzeko (BAME, BAEE, BAPE edo baliokidea): 0,15 puntu.
- Lizentziadun edo unibertsitateko master-titulu bakoitzeko: 0,20 puntu.
- Doktore-titulu bakoitzeko: 0,25 puntu.
- 10 ECST kreditutik gorako graduondokoak: 0,15 puntu.
- 10 ECST kreditu arteko graduondokoak: 0,10 puntu.

B.2. Lehiaketako lanpostuaren sailkapen-taldeari edo -azpitaldeei egokitutako titulazio ofizialak baino ez dira baloratuko. Hortaz, lanpostuaren sailkapen-taldearen edo -azpitaldeen beheargoko eta goragoko titulurik ez da baloratuko. A1 talderako titulazio egokitutako joko dira honako titulu hauek: gradua, lizentzia, unibertsitateko masterra eta doktoregoa. Lanpostuen zerrendako «Lanpostuaren betekizunak-Titulazioa» atalaren barruan, titulazioak baldintza gisa ageri badira, orduan ez dira baloratuko.

B.3. Jakintza-arlo beraren barruan, titulazio ofizial batek baliorik gabe uzten du bere azpitik hurrengo dagoena. Era berean, ez dira baloratuko goragoko tituluak lortzeko bidean atera behar izan diren beheargoko tituluak.



B.4. Tituluak atzerrian lortuak badira edo beste herrialde batzuetako irakaskuntza-erakundeek emanak badira, haien homologazioa erantsi behar zaie halakoei.

C) Prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak

C.1. Prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak gainditzeagatik edo emateagatik gehienez puntu bat eta zazpi hamarren emango da (1,7), baldin eta ikastaro horiek lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzenean lotuta dauden gaiei buruzkoak badira, eta ikastaro horietan diploma eta/edo bertaratze-ziurtagiria eta/edo, hala badagokio, emate- edo aprobetxamendu-ziurtagiria eman bada. Puntuazio hori baremo honen arabera emango da:

- 0,03 puntu jasotako ikastaro-ordu bakoitzeko.
- 0,06 puntu emandako ikastaro-ordu bakoitzeko.

Jasotako ikastaroen atala hiru zatitan banatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera:

- C.1.1. Hurrengo bi ataletakoak ez diren prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, betiere deialdiko lanpostuei dagozkion eginkizunekin loturiko gaiei buruzkoak badira, gehienez bederatzi hamarren (0,9).
- C.1.2. Administrazio-prozedurari, funtzio publikoari, taldeko lan-teknikei, kalitateari, berdintasunari, laneko arriskuen prebentzioari edo Ebaluazio Batzordeak Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zeharkakotzat jo dituen beste gai batzuei buruzko prestakuntzako eta hobekuntzako oinarriko ikastaroak: gehienez lau hamarren (0,4).
- C.1.3. Erabiltzaile-mailako eta kudeaketako informatikari buruzko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak: gehienez lau hamarren (0,4).

C.2. 2010eko urtarrilaren 1etik deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunera arte jasotako ikastaroak baino ez dira baloratuko. Emandako ikastaroak, lanpostuaren zereginekin lotura baldin badute, C.1.1) atalean bakarrik hartuko dira kontuan. Ikastaro horiek baloratzerakoan, ez da kontuan hartuko noiz eman ziren.

Administrazio publikoko ikastegiak (IVAP, INAP, IEAP, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia edo administrazio publikoko beste eskolaren bat) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaroak baloratuko dira, ikastegiak sinatutako bertaratze- edo emate-ziurtagiria edukiz gero.

Horretarako, honako hauek joko dira zentro ofizialtzat: unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen eta merkataritza-ganberen edo elkargo ofizialen menpean dauden zentroak.

Ez dira baloratuko ez ikastegi pribatuek emandako ikastaroak, ez fakultateetako edo eskoletako ikasketa-plan ofizialen barruko ikasgaiei dagozkienak, ez eta masterretako edo graduondokoetako moduluak ere.

Informatika-ikastaroei dagokienez, ordea, ikastaro guztiak baloratuko dira. Berdin izango da zein zentrok, publikok nahiz pribatuk, eman dituen ikastaro horiek.

Informazioaren teknologien arloan Softwarearen Europako Institutuak ematen dituen erabiltzaile-ziurtagiriak (IT Txartela) prestakuntzako ikastarotzat joko dira lehiaketa honen ondorioetarako. IT Txartel horiek IVAPek zehazten dituen orduen arabera baloratuko dira, baldin eta ziurtagiriak ikastaroen baloraziorako tresna badira eta ikastaro horien aprobetxamendua ziurtatzeko eskatuko diren baldintzetako bat badira.

C.3. Ziurtagiri batean ez bada zehaztu ikastaroen iraupena, bakoitza ordu batekoa izan dela pentsatuko da, salbu eta aurkeztutako dokumentazioak (programa, iragarkiak, eta abar) iraupena zalantzarik gabe adierazi badu.

C.4. Aurreko zenbakian xedatutakoarekin bat etorritik, ikastaro bati eman dakioken gutxieneko puntuazioa 0,03 edo 0,06 izango da, kasuaren arabera.

C.5. Ikastaroen baliozkotasuna: ez da kontuan hartuko behin baino gehiagotan jasotako edo emandako ikastarorik; halakoetan, azkena edo interesdunak hautatutakoa baloratuko da.



Ez dira baloratuko zaharkitutako gaiei edo indargabetutako legeei buruzko ikastaroak, edo dagoeneko erabiltzen ez diren programei edo gaiei buruzkoak.

Ez dira baloratuko praktiketan, funtzio publikoan sartzeko edo barne-sustapenerako egindako ikastaroak. Halaber, ez da baloratuko bileretara, jardunaldietara, komunikatuetara, mintegietara eta antzekoetara joatea, halakoak ez baitira ikastaroak.

C.1.2) eta C.1.3) zenbakietan bakarrik baloratuko dira talderako egokiak diren oinarriko ikastaroak, zenbakietan horietan aipatzen diren gaiei buruzkoak; ez dira baloratuko, beraz, sakontzekoak, espezializaziokoak edo antzekoak.

D) Antzinasuna

Administrazio publikoetan egindako zerbitzu-urte oso bakoitzeko: 0,102 puntu, eta gehienez ere 3 puntu. Urtea osatzen ez duten zerbitzuak honelaxe baloratuko dira: 0,0085 puntu hilabete edo zatiki bakoitzeko.

Halakoetan, talde profesionalen sartu aurretik egindako eta beren-beregi aintzatesitako zerbitzuak hartuko dira aintzat. Ez dira aintzat hartuko alegatutako beste zerbitzu batzuekin batera emandako zerbitzuak.

E) Gradu pertsonalaren balorazioa

Lanpostu-mailako osagarriari dagokion maila pertsonala baloratzeko, baremo honi jarraituko zaio:

- Eskatutako lanpostuaren maila bereko edo goragoko lanpostu-mailako osagarria duen lanpostu baten titularra izateagatik: 2 puntu.
- Eskatutako lanpostua baino maila bat gutxiagoko lanpostu-mailako osagarria duen lanpostu baten titularra izateagatik: 1,5 puntu.
- Eskatutako lanpostua baino bi maila gutxiagoko lanpostu-mailako osagarria duen lanpostu baten titularra izateagatik: 1 puntu.
- Eskatutako lanpostua baino hiru maila gutxiagoko lanpostu-mailako osagarria duen lanpostu baten titularra izateagatik: 0,5 puntu.

F) Euskara

Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna nahitaez bete beharko da kasuan kasuko lanpostuan jarduteko. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa izan ezean, euskararen ezagutzari merezimendu moduan emango zaion balorazioa zehazteko baino ez da erabiliko.

Horretarako, euskararen ezagutzari buruzko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke ariketak egitea prozeduraren beste fase bat izango da.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak, derrigorrezkoak diren hizkuntza-eskakizunen betekizuna egiaztatzeke asmoz, kasu bakoitzean beharrezkoa den euskararen ezagutza-maila ebaluatzeko ariketen edukia eta era zehaztuko ditu.

Hizkuntza-eskakizuna Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuta dutenek edo baliozkotutako agiria edo hizkuntza-eskakizuna dutenek, agiri horiek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera (jatorrizko agiria, erkatua izan dadin, edo behar bezala erkatutako fotokopia) eta ez dituzte proba horiek egin beharko. Aipatutako baliozkotze hori hauen arabera izan beharko da: EAEko sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, alde batetik, eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozikidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, bestetik.

Agiriok ez dira beharrezkoak izango hizkuntza-eskakizuna dagoeneko egiaztatuta badago Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako ziurtagirian edo, bestela, egiaztatuta ageri bada Euskara Tituluen eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan. Azken kasu horretan, interesdunak berriazko baimena eman behar dio Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari dagokion egiaztapena egin dezan erregistro horretan. Aukera horretatik salbuetsita geratu dira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean egiten diren euskara-mailaren



egiaztatzeak (Dekretu horren bidez, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsi dira), eta, halako kasuetan, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.

Hala ere, baldin eta, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datatik lehiaketa honetako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke ariketa egin arteko epearen barruan, IVA-Pek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke deitutako ariketak egiten badira, azken deialdi horietan lortutako emaitzak baliozkotzat joko dira lehiaketa honetarako, ariketak birritan egin behar ez izateko.

Hizkuntza-eskakizunak era honetara baloratuko dira:

- A2B1: 0,8 puntu.
- B1B1: 1,12 puntu.
- B1B2: 1,36 puntu.
- B2B2: 1,6 puntu.
- B2C1: 1,92 puntu.
- C1C1: 3,2 puntu.

Hizkuntza-eskakizunen balorazioak ez dira metatuko. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunik handienari dagokion puntuazioa baino ez da baloratuko.

2. MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK

Dauzkaten berezitasunengatik 1. eranskinean zehaztuta dauden lanpostuak behin betiko adjudikatzeko bigarren fase bat egongo da prozeduran, lanpostuok betetzeko merezimendu espezifikoak behar direlako; bada, fase horretan, lanpostuen ezaugarrietara egokitutako merezimendu espezifikoak egiaztatuko eta baloratuko dira, lanpostu bakoitzaren deskripzioaren arabera eta 1. eranskinean bildutako eginkizun eta erantzukizun nagusiak aintzat hartuta.

Fase honetan, lanpostuaren edukiari buruzko proba edo ariketa praktiko bat egingo da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba edo ariketa horretan gehienez ere 6 puntu lor daitezke, eta hura gainditzeko gutxienez hiru puntu lortu beharko dira.

Proba hori egiteko, Balorazio Batzordeak emandako agiriak baino ezin izango dira erabili. Proban benetako ustezko hori ebazteari lotutako gaiak landu beharko dira, betiere deitutako lanpostuaren funtzioak eta eskumenak aintzat hartuta.



1A ERANSKINA

Lanpostua	Izena	G/S	FL	TP	SP	Ordainsariak		Lanpostuaren betekizunak				Baldintzak				PE1	PE2	Oharrak	Lanpostua	Lan-zentroa	Deskribapena	Derrigortasun-data
						NC	Comp. Esp.	AD.	G/S	EC	SE.	Plaza	Titu.	P	EX							
1004	H. ETA NER. ZERB. DIB. BURUA	A/A1	L	B	1	1	25	46.627,47	1	A/A1		1004	C1C1		B	B	E	B	1	10000	UGASKO	2012/12/31

26. oharra: Lanpostuaren edukari buruzko proba espezifikoa, sexu-deltugleen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa, baloratu gabeko lanpostua.

Plaza	
1004	110
	Goi-mailako teknikaria
	115
	Goi-m. teknikaria- Prebentzioko goi-mailako tituluduna
	212
	Zuzenbidean lizentziatua
	410
	Psikologoa
	510
	Medikua



1B ERANSKINA

Lanpostua	Izena	G/S	FL	TP	SP	Ordainsariak		Lanpostuaren betekizunak					Baldintzak				Lanpostua	Lan-zentroa	Deskribapena	Derrigoitasun-data					
						NC	Comp. Esp.	AD.	G/S	EC	SE.	Plaza	Titu.	P	EX	DR					E	I	T	D	PE1
2012	EG. HARRERAKO ZUZEN-DARIA	A/A2	L	B	1	23	36.213,54	1	A/A2		2007	C1C1				B	B	E	B	B	23	1	10000	UGASKO	2012/12/31

23. oharra: Deialdira aurkezteko aukera lizentziaturako hiru ikastaro gaindituz gero, lanpostuaren edukia iri buruzko proba espezifikoa, sexu-deltugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

Plaza	
2007	220
Erdi-mailako teknikaria	



1C ERANSKINA

Haur eta nerabeentzako zerbitzuen alorraren burua*Eginkizunak*

- Egoitza Harrerako Unitatea zuzentzea, zentro eta etxe funtzioaletan esku-hartze-ko programak planifikatzea eta ebaluatzea, eta hango hezitzaileei suertatuz doazen egoeretan laguntzea.
- Gerentziaren eskakizunei erantzutea, hark adingabearen arretaren ikuspuntuari dagokionez galdatzen duen guztian.
- Zentro eta etxe funtzionalentzako laguntza bihurtzea, artatutako pertsonak gizar-tean egokitzeko; horretarako, asistentziaren eta psikologiaren ikuspegitik beharrezkoa den informazioa ematea eta beste zerbitzu batzuen esku-hartzea ahalbidetzea.
- Gizarte Ekintza Saileko Adingabeen Zerbitzuarekin harreman estuan egotea, adingabeari arreta hobea emateko, eta haren egitura-araudiarekin bat etorritz.

Egoitza-harrerako zuzendaria*Eginkizunak*

- Antolaketari erreparatuz, Asistentziaren Alorreko Burutzari proposatzea bere eskumeneko programak edo zerbitzuak sortu, desegin edo aldatu behar direla.
- Familia-etxeen sareko programak, zerbitzuak eta jarduera orokorrak zuzentzea, kontrolatzea eta gainbegiratzea.
- Familia-etxeen sarearen eta Umeen Zerbitzuaren arteko harremanak mantentzea, erraztea eta sustatzea, aldizka parte hartzeko bideak baliatuta.
- Pertsonen erreparatuz:
 - Alorreko Burutzari proposatzea, ahal denean, bere ardurapeko zentroan erantzukizuneko karguak bete behar dituzten pertsonen izendapena eta baliogabetzea.
 - Haren ardurapeko zentroan pertsonak kontratatzea proposatzea.
 - Bidezkoa bada, diziplina-espeditenteak irekitzea proposatzea.
- Baliabideen erreparatuz:
 - Indarrean dagoen araudiaren araberrako gastuak proposatzea.
 - Sarearen gastua kontrolatzea eta gainbegiratzea, xedatutako helburuetara egokituta.
 - Dagokion arloan administrazio-kontratazioko espeditenteak proposatzea.
- Asistentziaren Alorreko Burutzari bere eskumeneko gaietan egoki irizitako ekintza guztiak proposatzea, haren Zuzendaritzak izapidetu behar dituenak soilik.
- Egoitza-harrerako plaza behar duten haurren eta nerabeen ezaugarrietarako egokiena den etxea edo zentroa esleitzea, ezarritako irizpideen eredura.
- Egoitzetako gailuei, hezkuntza-dokumentazioari eta zentroen Dekretuak eskatutako esku-hartzearen txostenei eta erregistroei buruz aholkatzea eta horiek baliozkotzea sare osoan.
- Hitzarmenen bidez kudeatutako zentroek eta etxeek aurkeztutako hezkuntza-dokumentazioa ikuskatzea.
- Egoitza-harrerari buruzko araudiak eskatzen dituen jarduketa-protokoloak eta administrazio-erregistroak lantzea eta koordinatzea.
- Familia-etxeen sarearen ordezkari izatea eskatu zaizkion foroetan eta parte-hartze eremuetan.
- Nagusiek agintzen dizkieten edo indarreko xedapengatik esleitzen zaizkion guztiak.



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

ESKABIDE-ORRIA/INSTANCIA
2. ERANSKINA / ANEXO 2
1. ORRIA / HOJA 1

1. Datu pertsonalak / Datos personales			
1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre	
N.A.N. D.N.I.	Kargu edo Kategoria Cargo o Categoría:	Langile zk. N.º empleado/a	Kontaktu telefonoak: Teléfonos de contacto:
Probintzia Provincia	Posta kodea Código postal	Udalerrria Municipio	Egoitza Domicilio

2. Egoera administratiboa lehiaketan parte hartzean / Situación administrativa desde la que se concursa	
Titular gisa egun daukan lanpostuaren izena Denominación del puesto de trabajo actual, como titular	Betetzeko era / Forma de ocupación: <input type="checkbox"/> Behin betiko atxikipena / Adscripción definitiva <input type="checkbox"/> Behin-behineko atxikipena / Adscripción provisional
<input type="checkbox"/> Zerbitzu bereziak / Servicios especiales <input type="checkbox"/> Seme-alabak zaintzeko eszedentzia / Excedencia cuidada de hijos/as <input type="checkbox"/> Borondatezko eszedentzia / Excedencia voluntaria	<input type="checkbox"/> Egoera honetatik izultzeko eskatzen du: Solicita reingreso desde la situación de: <input type="checkbox"/> Beste herri administrazioen batean zerbitzuan Servicio en otras Administraciones Públicas.

3. Legez aintzatetsitako ezgaitasuna duten langileak / Personal que ostenta la condición legal de discapacitado	
Gradua / Grado	Egokitzapenik egin behar da lanpostuan? Zehaztu zeintzuk eta eman arrazoia Especifique, en su caso, el motivo y adaptaciones del puesto que considere necesarios
Egokitzapenik egin behar da probak egiteko? Zehaztu zeintzuk Especifique, en su caso, las adaptaciones precisas para las pruebas a realizar	

4. Hizkuntza eskakizuna / Perfil Lingüístico	
Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin nahi duzu? Zein hizkuntz eskakizun? ¿Desea realizar prueba de acreditación de Perfil Lingüístico? ¿De qué perfil?:	<input type="checkbox"/> C1C1

5. Erantsitako agiriak / Documentación que se adjunta		
Agiria / Documento	Erantsi da? / ¿Se adjunta?	Agiri kopurua / N.º de documentos
Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuen ziurtagiria / Certificado de servicios prestados en otras administraciones públicas	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	
Titulu akademikoen zerrenda / Relación de títulos académicos	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	2.3 eranskinean agertzen dira Relacionados en Anexo 2.3
Ikastaroen zerrenda / Relación de cursos	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	2.4 eranskinean agertzen dira Relacionados en Anexo 2.4
Legazko ezgaitasunaren eta mugitzeko zailtasunari buruzko ziurtagiria Certificado de la condición legal de discapacitado/a y sobre la dificultad de movilidad	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	
Bestelakoak / Otros (Título de Euskera, etc.)	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	

2. orrian jarraitzen du / Continúa en la hoja 2



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2
2. ORRIA / HOJA 2

1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre
----------------------------	----------------------------	-----------------

6. Eskatutako lanpostuak / Puestos que se solicitan				
Lehent. hurren. Orden prefer.	Azalpena Denominación	Postu Kodea Código Puesto	Lanpostu Dot. Dotación Puesto	Lantokia Centro trabajo
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				

Balioets daitezkeen merezimenduen ziurtagiri, frogagiri, fotokopia eta gainerakoak aurkezten dira eskabidearekin batera
Lehiaketan onartua izateko eskatzen du behean sinatzen duenak, eta eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla adierazten du.

A la presente solicitud se acompañan las certificaciones, justificantes, fotocopias, etc., de los méritos evaluables.
La/El abajo firmante solicita su admisión al concurso y declara ser ciertos los datos consignados en esta solicitud.

Bilbao, 202_ko / _____ / _____
(Sinadura / Firma)

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN KUDEATZAILEA
GERENTE DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzkoa, eta 2016/679Erregelamendu, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, betetzeko, jakinarazi nahi dizugu zure datuak Gufeko Pertsonala izeneko fitxategian sartuko direla, eta Gufeko Kudeatzailetza dela fitxategi horren erantzulea.

Jasotako datuak beharrezkoak dira Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza kudeatzeko.

Agiri hau beteta, honako hau onartzen duzu: goian esandako erantzuleak zure datuak erabili ditzake, goian esandako helburuetarako.

Horrez gain, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu; horretarako, Gufeko jendaurreko bulegoetara bidali behar duzu idazki bat (Ugasko bidea, 5 bis, 1º 48014 – Bilbo). Idazki horri NANaren edo agiri baliokide baten kopia erantsi behar diozu.7

Con el objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de los Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, le informamos de que sus datos van a ser incluidos en el Fichero Personal, cuyo responsable es la Gerencia del Ifas.

Los datos recabados son necesarios para la gestión de la Dirección de Servicios Generales.

Con la cumplimentación del presente documento, usted consiente al tratamiento de sus datos, por el Responsable indicado anteriormente, con las finalidades descritas en el párrafo anterior.

Asimismo, podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo una comunicación por escrito a las oficinas de atención al público del Ifas, C/ Camino de Ugasko, 5 bis, 1.º-48014 Bilbao, en la que se incluya una copia de su DNI u otro documento identificativo equivalente.



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2
3. ORRIA / HOJA 3

1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre
----------------------------	----------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, TITULU AKADEMIKOEN ZERRENDA OROKORRA.
RELACION GENERAL DE LOS TÍTULOS ACADÉMICOS ORDENADOS CRONOLÓGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Zb. N.º	IZENA DENOMINACION	Orduak Horas	Hasiera Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				

Bilbao, 202_ko / _____ / _____
(Sinadura / Firma)



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2
4. ORRIA / HOJA 4

1. deitura 1.º apellido	2. deitura 2.º apellido	Izena Nombre
----------------------------	----------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, HARTUTAKO ETA/EDO EMANDAKO IKASTAROEN ZERRENDA OROKORRA.
RELACION GENERAL DE LOS CURSOS IMPARTIDOS Y/O RECIBIDOS ORDENADOS CRONOLOGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Administrazio publikoko eskolek (IVAP, IANAP, IEAP edo administrazio publikoko beste eskola batzuek) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak.
Cursos de Formación o perfeccionamiento organizados por Escuelas de Administración Pública (IVAP, IANAP, IEAP u otras Escuelas de Administración Pública) y Centros Oficiales.

Zb. N.º	IZENA DENOMINACION	Orduak Horas	H (hartutakoa) R (recibido) E(emandakoa) I (impartido)	Hasiera Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					

Bilbao, 202_ko / _____ / _____
(Sinadura / Firma)



3. ERANSKINA / ANEXO 3

Nik, Alazne Rubio Terradillos, Zerbitzu Orokorren zuzendariak, honako hau

Alazne Rubio Terradillos, Directora de Servicios Generales

ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan dagoen dokumentazioaren artean ondoko datu hauek agertzen dira:

Que, entre la documentación obrante en la Dirección de Servicios Generales, figuran los datos que a continuación se detallan:

1. Datu pertsonalak / Datos personales	
Deiturak eta izena / Apellidos y nombre:	Enplegatu zk. / N.º empleado/a:
Taldea / Azpitaldea:	
Grupo / Subgrupo:	Kategoria / Categoría:

2. Egoera administratiboa / Situación administrativa	
Jarduneko zerbitzuan / Servicio activo: ()	Zerbitzu berezietan / Servicios Especiales: ()
Zerbitzu eginkizunetan, beste herri administrazio publiko batzuetan / Comisión Servicios en otras Administraciones Públicas: ()	

3. Oraingo destinoa / Destino actual	
Saila / Departamento:	Zerbitzua-Atala / Servicio-Sección:
Eginkizuneko organikoa / Orgánico funcional:	Izena / Denominación:
Lanpostuaren kodea / Código puesto:	D.O. / C.D.:
Atxikipen eguna / Fecha adscripción:	Lanpostua betetzeko modua / Forma ocupación:

4. Merezimenduak / Méritos	
4.1. Titulazioak, datu-basean ageri direnak: Titulaciones que constan en la base de datos:	
4.2. Antzintasuna, deialdi egunean / Antigüedad a la fecha de la convocatoria () servicios previos reconocidos): Urteak / Años: Hilabeteak / Meses: Egunak / Días:	(aurretiatzko zerbitzu aintzatetsiak barne / incluidos)
4.3. Sendotutako maila pertsonala / Nivel personal consolidado:	
4.4. Euskara / Euskera. Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna / Perfi lingüístico acreditado:	

Interesatuak eskatuta luzatzen dudan ziurtagiria / Certificado que expido, a petición del/la interesado/a
Bilbon, 2025ekoaren ...(e)an / En Bilbao, a ... de de 2025

Oharra: 3. eranskina "Emandako zerbitzuen ziurtagiria", administrazioak izapidetuko du.

Nota: Anexo 3 "Certificado de prestación de servicios", se tramitará de oficio.